

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAGUNTZEN LAGUNDUKO DIGUZU?

Entzute eta Erantzute Sarea



Zer da Entzute eta Erantzute Sarea?

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ikastegien Entzute eta Erantzute Sarea **unibertsitateko ikasleen, irakasleen, Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren eta ikastegien arteko lankidetzaz egitura informala da**, zaurgarritasun egoeran dauden ikasleen beharrak detektatu eta horiei erantzuna emateko.

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzak bultzatutako proiektu parte hartzailea da Sarea.

Zeintzuk dira haren helburuak?



Entzun eta lagundu.

Sareak unibertsitateko **baliabideak jartzen ditu ikasleen eskura**, zailtasun akademiko, psikologiko, ekonomiko edo sozialak dituztenean lagundu ahal izateko.



Balioak sustatu.

Sareak, halaber, **elkartasuna eta enpatia bezalako balioak** sustatzen ditu unibertsitateko kideen artean, eta ikaslearen prestakuntza integratuz eragiten du, ingurunearekiko konpromisoaren bidez.





Nork parte har dezake Entzute eta Erantzute Sarean?



UPV/EHUko ikastegiak

Hori egiteko interesa duten **UPV/EHUko ikastegi guztiak** parte har dezakete Entzute eta Erantzute Sarean. Horretarako, Sareko erreferentziako pertsona bat izendatu beharko dute, bere ikastegian haren jarraipena egiteaz eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzarekin hitz egiteaz arduratuko dena.

Sarean **parte hartu nahi duten ikastegiak** Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzarekin **harremanetan jar daitezke, Ikasleen Zuzendaritzaren bitartez.**



UPV/EHUko ikasle, irakasle eta AZPkoak

Entzute eta Erantzute Sarea lankidetzan aritu nahi duten **UPV/EHUko ikasle, irakasle eta AZPko guztiei irekitako proiektua** da. Ikasle, irakasle eta AZPko laguntzaileak sareko baliabideetara sartu nahi duten pertsonen kontsultak jasotzeaz arduratuko dira, bai eta zaugarritasun egoeran dauden ikasleen beharrak hautemateaz ere.

Sarean parte hartu nahi duten ikasleek, irakasleek eta AZPkoek **beren ikastegiko ikasleen dekanordearengana edo zuzendariordearengana jo beharko dute.**

Prestakuntza saioak

Sareak **berriazko prestakuntza saioak eskaintzen dizkie parte hartzen duten ikasleei, irakasleei edo AZPkoiei.** Era berean, jarduteko jarraibideak proposatuko dira, eta Unibertsitateak zaugarritasun egoeran dauden ikasleei laguntzeko eskaintzen dituen zerbitzu eta programei buruzko informazioa emango da.

Harremanetarako

Ikasleen eta Enplegarritasunaren
Errektoreordetza
entzute.sarea@ehu.eus
www.ehu.eus/ikasi/entzute-sarea

